

GIL 75 Purón ibaiaren haitzartea



Purón ibaiko arroilako horma bertikalak.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 50' 34" N

Long.: 3° 13' 51" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 481.143,84 m

Y: 4.743.465,71 m



Nola iritsi

Utzi autoa Herrán (Burgos) herritik hurbil dagoen aparkalekuan, eta zoaz oinez Purón ibaiari jarraitzen dion pistatik. Zurezko itxitura bat dago harana estutzearekin batera. Zeharkatu itxitura hori, eta segitu bidexkan aurrera, ibaiari jarraituz, haran nahiko zabal batetik, ibaia bat-batean biratu eta harana itxi arte; hura da haitzartearen hasiera.

GILaren deskribapen laburra

Purón ibaiaren haitzartea Valderejoko Parke Naturalean dago, Arcena mendilerroan. Purón ibaiak Valderejo zeharkatzen du, eta Valderejoko antiklinalaren hegoaldeko alpea —Goi Kretazeoko kareharriz eta margaz osatua— zulatzen du; sigi-sagan egiten du aurrera, arroila estuak eta haran zabalak aldizkatuz, alpearen egitura definitzen duten pasabide tupatsu ortoklinalen eta kareharrien barra monoklinalen segidaren ondorioz.

Purón ibaiaren haitzartea, zehazki, ibaiak kareharrien barra horietako bat zeharkatzen duen tokian dago. Haitzarteak toba-izaerako betegarri sedimentario bat du, haitzartearen hornei ongi itsatsia, eta terrazak eratzen ditu; puntu batzuetan, 25 m-rainokoak.

Metakin horiek Holozenokoak dira, eta bi metakin-mota nabarmentzen dira: toba-metakin autoktonoak eta aloktonoak. Ibilguan, kareharrien barrak zeharkatzean, jatorri estrukturaleko mehartzeak gertatzen dira, eta ur-jauzi txikiak eratzen dira; haiei dagozkie metakin autoktonoak. Malda-eten txiki horiek prezipitazio karbonatutako prozesuak errazten dituzte, eta hesi-efektuko toba-eraikinak eratzen hastea eragiten dute, zeinek harana partzialki ixten baitute. Horren ondorioz, ura partzialki presatua geratzen da, eta hori lagungarria da atxikitze partzialeko toba-eraikin mota bat sortzeko, zeinak ez-augarri baitu izaera detritikoko betegarri karbonatatu garrantzitsuak egotea. Halaber, Holozenoan mendi-mazelen dinamika aktiboko faseak egotearen ondorioz, kolubioiek osatutako maila txiki batzuk jalki ziren.

Purón ibaiko toba-metakinak 25 m lodi dira puntu batzuetan; haien sedimentazio-erritmoak aldatuz joan ziren Holozenoan, ingurumen-kondizioak aldatu ahala. Toba-sedimentazioa Holozenoko lehen etapetan hasi zen, Purón ibaiko eraikinen oinarriaren adinak erakusten duenez. Sedimentazio-erritmoa azkartu egin zen Borealaren (11.500-8.900 urte) eta Atlantikoaren (8.900-5.700 urte) erdialdearen artean, eta Subborealera arte (5.700-2.600 urte) luzatu zen.

Sedimentazioaren sabaia ezin izan da zehaztasunez datatu; horren ondorioz, ez dago argi zerk eragin zuen toba-sedimentazioaren bukaera eta gaur egun arte luzatzen den intzizio baten hasiera. Alde horretatik, beharrezkoa da mahai-gaineratzea zer eragin izan ote duten beste prozesu batzuek —adibidez, haranaren antropizazioa—, haitzartearen eboluzio geomorfologikoan. Esan daiteke gizakia Neolitikoan hasi zela Valderejo eta Tobalina okupatzen. Garai horretan, artzain-taldeak lurraldea okupatzera joaten ziren, oso egokia baitzen artzaintzarako. Purón ibaiaren haitzartean bertan eta Lerón mendiaren mazeletan, badira aztarna batzuk haitzuloetan kokalekuak izan zirela adierazten dutenak; izan ere, Purón ibaiaren harana estutzen zenez eta ura bazegoenez, inguru hori oso leku egokia izango zen ehizarako.

Behatzeko punturik onena

In situ. Arroilan zehar.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 111, GIL 121.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 46, GIL 74.



Arroilaren sarreran dauden trabertinoen xehetasuna.



Purón ibaiaren ibilguko tobek eratutako putzu natural txikiak.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa		●		
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafiko/Sedimentologikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- González Amuchastegui, M. J. eta Serrano, E. (2005): *Quaternary tufa buildup stages in Mediterranean-Cantabric transitional environment* (High Ebro Basin, Northern Spain). Sixth International Conference on Geomorphology.
- González Amuchastegui, M. J. eta Serrano, E. (2007): *“Evolución geomorfológica, cambios ambientales e intervención humana durante el Holoceno en la Cuenca Alta del Ebro”*. Estudios Geográficos, LXVIII, 263, 527-546.